

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2015eko abenduaren 15a – 2016ko abenduaren 14a

Itziar Etxebarria Bilbao

aldezlea

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. 2016ko aztergaiak.....	3
1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta landutako aztergai kopurua.....	3
1.2. Bulegora etorritako pertsonen generoa	4
1.3. Bulegora etorritako pertsonen erabilitako hizkuntza.....	5
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk"	6
1.5. Aztergaiak campusen arabera.....	8
1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	9
1.7. Aztergai motak.....	12
1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak.....	13
1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteaturiko aztergai motak.....	15
1.8. Kolektibo bakoitzekoek planteaturiko gaiak.....	16
1.9. Bulegoaren esku-hartzea.....	20
1.9.1. Baietsitako kexen gaiak.....	21
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	23
1.10. Jasotako erantzunak.....	23
1.11. Inplikaturiko zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak.....	24
1.12. Ondorioak eta aholkuak.....	24
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk.....	25
2.1. Aldezlea erakundearen publizitatea.....	26
2.2. G9 taldeko defendatzaileen bilerak.....	26
2.3. Araudi aldaketei buruzko jardunaldi teknikoa.....	26
2.4. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XIX. Bilkura	27
2.5. CEDUren foroak.....	27
2.6. CEDUren Zuzendaritza Batzordea.....	28
2.7. <i>Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"</i> aldizkaria.....	28
2.8. Granadako Unibertsitatearen defendatzailetzara egindako bisita.....	28
2.9. Harremanak arartekoarekin.....	28
3. Urteko txosten ekonomikoa.....	29
4. Bost urteko ibilaldia.....	29
I. ERANSKINA: 2016ko aztergaien zerrenda.....	33

Sarrera

Bost urte igaro dira Klaustroak Aldezlea erakundea martxan jartzea eskatu zidanetik, 2011ko abenduaren 15ean. Txosten honetan, 2016. urteko jarduera aurkezteaz gainera, bost urteko aldi horren balantze txiki bat egin nahiko nuke.


Hasteko, 2016. urtean, bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditut, aurreko urteetakoekin erlazioan jarrita. Lehen atal honen amaieran, ondorio nagusiak nabarmenduko ditut, eta horiei buruzko zenbait iradokizun egingo ditut. Jarraian, bulego honek 2016an egindako beste jarduera batzuk deskribatu, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko dut. Amaitzeko, gogoeta labur bat egingo dut bost urte hauetan aldezte gisa egin dudana lanari buruz.

1. 2016ko aztergaiak


Atal honetan, bulegoak 2016an landutako aztergaiak eta haien oinarriko ezaugarriak deskribatzen dira. **I. ERANSKIN**ean urte osoko aztergaien zerrenda biltzen da.

1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta landutako aztergai kopurua

2016. urtean, 109 pertsona etorri dira aldeztearen bulegora, eta 117 gai ekarri dituzte guztira (Kontsultak, Kexak eta Bitartekaritza eskaerak kontuan hartuta). Lehen grafikoan ikus daitekeen moduan, hirugarren eta laugarren urtean gora egin zuen pertsona eta aztergai kopuruak, eta azken bietan, berriz, behera egin du. Beste unibertsitate batzuetako defendatzaileek aipatu, eta haien urteko txostenetan jasotakoaren arabera, azken bi urteetan izandako jaitsiera hori joera nahiko orokorra da. Gure unibertsitatean, 2016ko kasuak jaitsi dira, funtsean, ikasleen kontsultak gutxitu direlako (aurrerago ikusiko dugun moduan, ikasleek aurten iaz baino 17 kontsulta gutxiago aurkeztu dituzte).





Hurrengo ataletan, aipatutako 117 aztergaiak hartuko ditugu oinarritzko erreferentziatzat. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da, aztergai horiez gainera, **17 pertsonak** beste **18 aztergai** aurkeztu dituztela bulegoan. Pertsona horiek ez dute aurkeztu kontsultarik, kezarik edo bitartekaritza eskaerarik; aldiz, gertakizun batzuen berri eman digute, beharrezkotzat jo baitute, arrazoi pertsonalengatik edo unibertsitatearentzat garrantzitsuak izateagatik, aldezia jakinaren gainean egotea. Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, "gertakizunen kontakizunen" zenbatekoak nabarmen egin zuen gora 2013aren eta 2015aren artean; aurten, ordea, apur bat jaitsi da, altua izaten jarraitzen badu ere.



1.2. Bulegora etorritako pertsonen generoa

Aldezlearengana jo duten 109 pertsonen artetik, 59 emakumeak ziren, eta 50, gizonak. Hirugarren grafikoan, aldeziaren bost urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ematen dira, eta laugarrenean, ehunekoak.







Laugarren grafikoa ikus daitekeen moduan, lehenengo bi urteetan gertatzen zenaren aurrean, azken hiru urteetan sexuen arteko proportzioak UPV/EHUreren barruko proportzio erreala islatzen du, gutxi-asko (gaur egun gure unibertsitatean % 47,8 gizonak dira, eta % 52,2, emakumeak).

1.3. Bulegora etorritako pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 117 kasuetatik, 19 euskaraz planteatu ziren, eta 98, gaztelaniaz. Ikus 5. eta 6. grafikoa.






Seigarren grafikoa ikusten den bezala, aurten, euskararen erabilera, gaztelaniaren aldean, aurreko bi urteetan baino apur bat txikiagoa izan da. Bost urte hauetan, euskararen erabilera batez beste % 17,4 izan da.

1.4. Aztergaiak kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk"


Kolektiboaren arabera, 2016an, ikasleek 54 gai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 41; AZPko langileek, 14; eta, unibertsitatekoak ez diren pertsonen berriz, 8 ("Beste batzuk" kategoria). Zazpigarren grafikoa, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuta ematen dira. Ikus daitekeenez, AZPko langileek eta irakasle-ikertzaileek planteatutako gaien kopurua ezer gutxi aldatu da aurreko urtearekin alderatuta; oster, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen eta, batik bat, ikasleek planteatutako gaien kopuruak behera egin du.




“Beste batzuk” kategoriari dagokionez, 2015ean kasuen kopuruak behera egin zuen jada, 2014. urtearekin alderatuta, aurreko mailetara itzulita. Aurten gehixeago jaitsi da. Antza denez, 2014ko kasu kopuru handia aski anomaloa izan zen; ziur asko, urte hartan bi arazo jakinen inguruko kexak pilatu zirelako: “Ikasketetarako sarbidea” eta “Plazak/Ordezkapen poltsak” (ikus 2014ko txostenaren 15. or.).

Ikasleek planteatutako aztergai kopuruan izandako jaitzierari dagokionez, aditzera ematen digu beharbada ikasleak pixkanaka Bolonia Planari lotutako askotariko aldaketetara egokitzen ari direla. Interpretazio horrek zentzua hartzen du kontuan hartzen badugu kolektibo horretako kontsultetan eman dela jaitziera eta ez kexetan, 1.7.1. puntuari ikusiko dugun moduan.

Zortzigarren grafikoan irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen datuak aurkezten dira, ehunekotan. Ikus daitekeenez, lehen urteetan –lehenengoan batik bat– irakasleek zegoiena baino pisu handiagoa zuten aldeziaren aztergaietan, ikasleekin alderatuta, talde bakoitzak UPV/EHUn dituen ehunekoekin erlazionatuta, bereziki. Anomalia hori apur bat zuzendu da azken urte hauetan.




Bestalde, 2016an, ikasleek planteatutako 54 gaien artean, 40 graduako ikasleek aurkeztu dituzte; 8, graduondoko ikasleek; eta 6, Esperientzia Geletako ikasleek.




Graduko ikasleek planteatutako kasuen jaitiera horrek babestuko luke lehen egindako interpretazioa; horren arabera, kolektibo horretako kideak Bolonia Planaren aldaketetara egokitzen ariroteko lirateke (eta, ziur aski, baita hura martxan jarri zuten arduradunak ere: agintariak, AZPko langileak, irakasleak...).

1.5. Aztergaiak campusen arabera

Jaso ditugun 117 aztergaietatik, 54 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 40, Bizkaitik; eta 15, Arabatik (dagoeneko esan dugunez, beste 8 aztergai iritsi zaizkigu UPV/EHUkoak ez diren pertsonengandik). Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu (10. grafikoa), zera ikus dezakegu: Bizkaiko eta Arabako campusetako aztergaiak gora egin zuten 2012. eta 2014. urteen bitartean, eta gero behera; Gipuzkoan, berriz, gora egiten jarraitu dute orain arte.



Hamaikagarren grafikoak datu horiek ehunekotan azaltzen ditu. Bertan islatzen denez, lehen urtean, Bizkaiko Campusak, handiena izanda ere, zegoikiona baino pisu gehiago zuen (kasuen % 65,5 aurkeztu zituen, UPV/EHUren % 56,21 izanda). Ostera, 2015ean eta, batik bat, 2016an, Gipuzkoan asko igo dira kasuak, zentzuz espero daitekeena baino proportzio nabarmen handiago batera iritsi arte. Hori izan daiteke, neurri batean, Campus horretan aldezia ezagunagoa delako, baina kontuan hartu behar dugu hemen zoriak eragin handia duela: Bizkaian lehen urteko kasu kopuru handia ikastegi gutxi batzuetan pilatu zen; gauza bera gertatu zen Araban 2014an; eta badirudi gauza bera gertatu dela oraingoan Gipuzkoan.



1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

Lehen taulan, aldeziaren bulegora laguntza eske etorri diren pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu. Bertan, aztergai mota guztiak zenbatzen dira, nola kexak (gero baietsiak izan ala ez) hala kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Lehenengo taula honetan, ikastegiak aurreko urteetako izenarekin ageri dira. Bigarren taulan, berriz, aurtengo izandako berrantolaketa ondoz ondo izen berriak jarri ditugu.

1. taula. Aldezlearengana jo duten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak (lehengo izena)

Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-
Arte Ederren F.	1	5	1	4	2
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	3	3	1	-	-
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	3	7	2	2	3
Bilboko Ingeniaritza GET	7	4	4	5	3
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4	4	7
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-
Donostiako Enpresa Ikasketen UE	1	1	1	-	2
Donostiako Erizaintzaren UE	-	-	1	1	10
Donostiako Irakasleen UE	1	4	1	5	7
Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	1	2	1	1	2
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1	2	1	-	-
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1	15	3	3	3
Errektoregoa	1	-	-	-	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1
Farmazia F.	2	4	4	1	2
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	-	3	9	6	2
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	-	5	-	-	-
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2
Gasteizko Gizarte Langintzako UE	-	-	1	-	-
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6	6	2
Gasteizko Irakasleen UE	-	-	2	2	2
Gerentzia	-	-	1	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2
Gradu Ikasketen eta Berrikuntz. arloko Errekto.	-	1	-	-	-
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1	-
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte E. arloko Errekto.	-	-	-	1	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	1	2
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6
Informatika F.	-	2	4	2	-
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	3	1	2	4	1
Kimika F.	-	-	1	-	-
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1
Korta Eraikina	-	-	-	1	-
Lan Harremanen UE	1	4	-	-	1
Letren F.	2	6	16	7	3
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	4	1	1	2	-
Medikuntza eta Odontologia F.	13	6	16	11	9
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	1	1	6	3	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-
Psikologia F.	5	4	1	6	9
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5
Beste batzuk	15	16	26	14	8
Guztira	97	140*	164	139	119**

* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonen planteatu zituzten. Horregatik, zutabe horren emaitza osoa 137 izan beharrean, 140 da. ** Bi aztergai ikastegi edo zerbitzu desberdinetako pertsonen planteatu zituzten. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 119 da, 117 izan ordez .


Datu hauek ematen ditugun aldiro aipatzen dugun moduan, ondorioak ateratzeko unean, zuhurtasunez jokatzera komeni da. Zerrendatutako ikastegiak eta zerbitzuak oso desberdinak izateaz gainera (ez soilik tamainan), ikastegi edo zerbitzu bateko datuak asko alda daitezke urte batetik bestera, askotariko faktoreengatik.

2. taula. Aldezlearengana jo duten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak (oraingo izena)

Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-
Arte Ederren F.	1	5	1	4	2
Bilboko Ingeniaritza E	15	13	13	12	6
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4	4	7
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F.	5	24	5	3	5
Errektoregoa	1	-	-	-	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1
Farmazia F.	2	4	4	1	2
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6	6	2
Gerentzia	-	-	1	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	4	2	1	2
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreor.	-	1	-	-	-
Hezkuntza eta Kirol F.	3	1	4	6	3
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	1	7	10	11	9
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1	-
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte E. arloko Errektoreor.	-	-	-	1	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	1	2
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6
Informatika F.	-	2	4	2	-
Kimika F.	-	-	1	-	-
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1
Korta Eraikina	-	-	-	1	-
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	4	1	-	1
Letren F.	2	6	16	7	3
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1
Medikuntza eta Erizaintza F.	13	6	17	12	19
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-
Psikologia F.	5	4	1	6	9
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5
Beste batzuk	15	16	26	14	8
Guztira	97	140*	164	139	119**

1.7. Aztergai motak

Aztergai motei dagokienez, 2016an, 64 kontsulta, 47 kexa eta 6 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. Hamabigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatu daitezke.



Ikus daitekeenez, 2015arekin alderatuta, 2016an kontsulta kopurua –azken hiru urteetan argi igo ondoren– jaitxi egin da, eta kexak eta bitartekaritza eskaerak, berriz, joan den urteko maila bertsuan mantendu dira.


Bost urteetan aztergai motek izandako eboluzioa aztertzen badugu, bitartekaritzari buruzko datuen egonkortasun handiaz gainera, beste gertaera bat ere nabarmentzen da: urte hauetan kexen eta kontsulten arteko erlazioa alderantzikatzen joan da. Lehenengo urtean, kontsulta kopurua oso txikia zen kexa kopuruarekin alderatuta; haatik, berehala hasi zen handitzen, eta kexak, aldiz, astiro-astiro jaisten joan dira; hartara, gaur egun, kontsulten kopurua handiagoa da kexuena baino¹.

¹ Jazarpen kexei dagokienez, kontuan izan behar da Lan arloko jazarpen kexak konpontzeko hitzarmen berriaren arabera (2014ko abuztuaren 27ko EHAA), era honetako kexak aztertzea eta ebatzea jada ez dagoela Aldezlearen esku, Arbitraje Batzorde espezifiko baten esku baizik. Hori dela eta, azken bi urteotan, gure bulegoak aztertu dituen aztergaien artean ez dago horrelako kasurik. Dena dela, horrek ez du esan nahi aztergai ditugun zenbait arazotan jazarpen jokabideak agertzen ez direnik. Hitzarmenak berak honelaxe dio: “Nolanahi ere, ahal den kasuetan eta aldeek horren aldeko jarrera erakusten badute, erraztasunak emango dira bi aldeentzat konponbide egokia eman dadin modu estraofizialean edo Aldezleren bitartekaritzaren bidez (haren Funtzionamendu Arautegiaren 18. artikuluan jasotako prozeduraren bidez). Hitzarmena argitaratu zenetik, bulegoan aurkezturiko mota horretako kasuak “kexu”, “kontsulta” edo “bitartekaritza-eskari” gisa sailkatzen dira, aurkezpenean eginiko planteamenduaren arabera, eta —aurrerago aipatuko denez— aztergaiak tematika espezifikoaren arabera sailkatzean, “Jazarpena/Jazarpen-portaerak” izeneko epigrafean ageri dira.


1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak

Jarraian, 13., 14. eta 15. grafikoetan aztergai mota (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera, hurrenez hurren) bakoitzaren bilakaeraren berri ematen da, kolektiboka.


Lehenagoak erakusten duenez, kolektiboek egindako kontsulta kopurua, 2012. eta 2013. urteen artean nabarmen igo ondoren, azken urteetan ez da askorik aldatu. Ikasleak dira salbuespen bakarra. Kolektibo horrek kontsulta asko aurkeztu zituen 2014an eta 2015ean; aurten, ordea, 2013ko mailara jaitsi dira ikasleengandik jasotako kontsultak.



Kexei dagokienez –ikus 14. grafikoa–, aurten, joan den urtearekin alderatuta, apur bat jaitsi dira kolektibo guztietan, ikasleenean izan ezik, non, gutxi bada ere, gora egin baitute. Bost urte hauetan kexek izandako bilakaera aztertzen badugu, nahiko argi ikusten dugu behera egin duela irakasleen eta UPV/EHUkoak ez diren pertsonen kexa kopuruak.





Bestalde, bitartekaritza eskaerei erreparatzen badiegu (15. grafikoa), aurreko urteetan eskaera ia guztiak irakasle-ikertzaileenak izan baziren ere (talde horretan gatazkek zuten garrantziaren adierazle gisa interpretatzen genuena), 2015ean ez genuen eskaera bakar bat ere jaso talde horretatik eta azken urte honetan antzekoa izan da irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen eskaera kopurua, nahiko txikia (2 kolektibo bakoitzeko).




Argibidea: 2012. eta 2015. urteen bitartean, lerro berdea, AZPko langileei dagokiena, estaltzen duen horiaren berdina izan da.

1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteaturiko aztergai motak

Jarraian, aztergai motak aurkezten ditugu, generoaren arabera banatuta. Lehen grafikoak (16. grafikoa) erakusten digu emakumeek urtero –bigarrenetik aurrera bereziki– egin dituztela gizonen baino kontsulta gehiago. Kexei dagokienez (17. grafikoa), joera ez da hain argia. 2012an, 2013an eta 2015ean gizonen emakumeek baino kexa nabarmen gehiago aurkeztu zituzten, eta 2014an eta 2016an, kexa kopurua oso antzekoa izan zen bietan. Nolanahi ere, datuek adierazten dute gizonen emakumeek baino kexa gehiago jartzeko joera dutela: urtean batez beste 35 kexa aurkeztu dituzte gizonen, eta emakumeek, berriz, 26,6. Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), emakumeen eta gizonen datuak oso antzekoak dira.





1.8. Kolektibo bakoitzekoek planteatutako gaiak

Kolektibo bakoitzekoek planteatutako aztergai edo arazoak (edozein eratakoak, ez soilik keaxak) zehaztasun handiagoz ezagutzera emateko asmoz, jarraian, hurrenez hurren, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta “Beste batzuei” dagozkien lau taula aurkezten dira (3, 4, 5 eta 6. taulak).

Aurreko urteetan, taula horietan ez ziren sartzen 2012ko datuak; izan ere, urte hartan, lehenengoa eta kasuistika txikikoa izanik, aztergaiak ez genituen gai espezifikoaren arabera sailkatu. Aurten, datu guztiak aurkezteko asmoz, sailkapen hori egin dugu. Era berean, kasuen egungo kopuru handiagoa abiapuntutzat hartuta, aldaketa txikiren bat txertatu dugu kategorien sisteman; esate baterako, azken bost urteetan ia maiztasunik ez zutenak kendu, eta horiei zegozkien kasuak “Bestelakoak” kategorian sartu ditugu. Hori dela eta, desberdintasun txikiren bat hauteman daiteke taula hauetako 2013ko, 2014ko eta 2015eko datuen eta aurreko txostenetan aurkeztutakoaren artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmentzen dira gutxienez lau urtez errepikatu diren gaiak. Bestalde, taula guztietan parentesi artean agertzen diren kasuetan, aldezearen eginkizun nagusia izan da erantzun bat lortzea dagokion epean erantzunik jaso ez duten idatzi edo errekurtsioentzat².

Hirugarren taulan ikus daitekeenez, ikasleen kolektiboan, hauexek izan dira 2016ko gai nagusiak: “Ikasleen ebaluazioa”, “Irakaskuntzaren kudeaketa”, “Matrikula” eta “Ebaluazio berezia”. Horiek guztiak urtero nabarmendu ohi dira, eta bereziki lehenengo biak. Aurten, “Gatazka ikaskideekin” ere nabarmendu da, orain arte kolektibo horrek bulegoan planteatu gabeko gaia; hain zuzen, hori horrela gertatu bada, arazo berari lotutako hainbat kexa eta kontsulta jaso direlako izan da.

² 2013an, “Erantzunik eza” beste kategoria bat bezala sartu zen. Haatik, modu horretan, sakoneko arazoei buruzko informazioa galtzen zen. Gero, alderaketa egin ahal izateko, urte hartan kategoria horren barruan zeuden 3 gaiak beste kategoria batzuetara eraman dira.

Era berean, ikus daitekeenez, “Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea” eta “Arautegia aplikatzeko modua” gaiari lotutako arazoek –zerikusi handia dutenak Bolonia eredura eginiko urratsarekin– behera egin dute nabarmen azken hiru urteetan.

3. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1
Berdintasun arazoak	-	-	1	-	-
Datuak babestea	1	-	-	1	-
Diziplina arautegia	1	-	1	-	1
Doktorego tesia	2	-	1	5	2
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-
Ezgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1
Gatazka ikaskideekin	-	-	-	-	6
Genero indarkeria	-	-	1	-	-
Gradu/Master Amaierako Lana	1	-	4	2	1
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-
Greba	-	-	2	-	-
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1
Ikaskideen portaera	-	1	1	-	1
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14
Ikasleen Ordezkaritza	-	2	3	1	1
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1
Jendearentzako arreta	-	3	-	2	-
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2
Matrikula	1	4	5	3	4
Matrikula baliogabetzea	-	2	-	1	-
Mugikortasuna	-	-	2	1	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1
Guztira	33 (3)	62 (3)	68 (1)	67 (1)	54 (2)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (4. taula), 2016an gehien errepikatutako gaiak hauek izan ziren: “Irakaslan-banaketa” eta “Lan-baldintzak”, biak urtero errepikatzen direnak eta aurten are gehiago nabarmendu direnak. Nabarmendu beharreko beste datu bat da, oraingoan oso positiboa, aurten, kolektibo horretan “Gatazka lankideekin” kategorian joan den urtean baino gutxiago agertu dela; urte horretan ere nabarmen jaitzi ziren horrelako kasuak aurreko bi urteekin alderatuta. Era berean, 2016an, murriztu egin dira “Plazak/Ordezkapen poltsak” gaiari lotutako kasuak, zeinak maiz agertu ohi diren.

4. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016
Arautegia aplikatzeko modua		4	2	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-
Arazoak lankideekin	4	17	13	5	3
Azpiegiturak	-	1	-	-	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-
Bekak	-	-	-	1 (1)	1
Berdintasun arazoak	-	-	1	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2
Datuak babestea	-	-	-	1	-
Docentiaz	-	-	-	1	-
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-
Ebaluazio-epaimahaien hautaketa	-	-	1	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-
Erretiroa	1	-	-	-	-
Etika akademikoa (ikasleak)	-	-	1	1	-
Etika zientifikoa (irakasleak)	1	-	1 (1)	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-
GAURen arazoak	1	1	-	-	-
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-
Ikerketa-proiektuak	1	1	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-
Irakaslan-banaketa	5	3	6	4 (1)	8 (2)
Irakasleen ebaluazioa	-	-	-	-	1
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	2	-	-	2
Jazarpena/Jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1
Lan-baldintzak	3	2	3	2	6
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	2 (1)
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-
Bestelakoak	4	2	3	4	1
Guztira	40 (2)	50 (3)	56 (6)	42 (3)	41 (3)

Ikasleen kasuan esandakoari lotuta, aipatu behar da irakasle-ikertzaileen artean azken bi urteetan “Arautegia aplikatzeko modua” kategoriari lotutako gaiak desagertu egin direla.

AZPko langileei dagokienez (5. taula), 2016an, “Lan-baldintzak” kategoriari lotutako gaiak nabarmendu dira, eta gora egin dute azken bi urteetan. Ostera, “Plazak/Lekualdatze-lehiaketa” gaia aurreko urteetan errepikatu bada ere, aurtan ez dugu kasu bakar bat ere jaso.

5. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	1 ³
Gatazka agintariekin	-	-	-	1	-
Gatazka lankideekin	-	1	-	-	1
Hierarkiako nagusiaren portaera	-	-	2	1	2
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-
Lan-baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-
Plazak/Lekualdatze lehiaketa	2	1	3 (1)	2	-
Prezio publikoak	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-
Bestelakoak	-	1	1	1	1
Guztira	11 (0)	9 (1)	14 (2)	16 (5)	14 (1)

Azkenik, “Beste batzuk” kategorian (6. taula), aurtan, “Bekak”, “Ikasketarako sarbidea” eta “Plazak/Ordezkapen poltsak” gaiei lotutako kasuak daude berriro, baina azken bi kategoria horietan aurreko urteetan baino askoz ere gutxiago.

³ Kexan aipatzen zen AZPko langileentzako prestakuntza ikastaro batean gaztelaniaz bost talde eskaintzen zirela eta euskaraz, aldiz, bat bera ere ez.

6. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016
Bekak	3 (1)	1	-	1	2
Datuak babestea	-	-	-	1	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1
Erretiroa	-	1	-	-	-
Gatazka agintariekin	-	1 (1)	-	-	-
GAUREn arazoak	-	-	1	-	-
Gradu/Master Amaierako Lana	-	-	-	-	1
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-
Jazarpena/Jazarpen-portaerak	-	-	2	1 (1)	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-
Lan-baldintzak	-	-	1	-	-
Matrikula	-	-	2	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1
Unibertsitatera sartzeko proba	-	-	3	1	-
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-
Guztira	13 (3)	15 (1)	26 (1)	14 (2)	8 (0)

1.9. Bulegoaren esku-hartzea

Bulegoan planteatu diren 117 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (64, jada esan dugunez) erantzun egokia izan zuten, eta 6 bitartekaritza eskaerei ere erantzun zitzairen.

Aurkeztutako 47 kexen artetik, 21 atzera bota ziren askotariko arrazoiengatik: 18, prozedura arrunta ez amaitzeagatik (kasu ez-larriak); 1, funtsik ez izateagatik; 1, dagoeneko konponduta egoteagatik; eta 1, aldezleak gaian eskumenik ez izateagatik. Beraz, 26 kexa onartu ziren (% 55,3). Horien artetik, 8 ezetsi ziren, haien analisi zehatza egin ondoren arrazoirik ez zutela kontsideratu zelako, eta 1 artxibatu zen, pertsonak atzera egin zuelako. Beraz, azkenean 17 kexa baietsi ziren (onartutakoen % 65,4). Seigarren taulan, datu horiek aurreko urteetakoekin konparatzen dira.

Horrenbestez, aurten jasotako eta baietsitako kexa kopurua 2015ekoa baino txikiagoa izan da, eta lehenengo bi urteetako baino nabarmen txikiagoa.

7. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoen %)	Baietsiak (onartutakoen %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
Guztira	308	181 (% 58,8)	119 (% 69,7)

Honetan gaudela, komeni da urtero egiten dugun iradokizun bat gogora ekartzea. Taulan ikus daitekeen moduan, urtero atzera botatzen da kexa kopuru handi bat (herenaren eta erdiaren artean). Horren arrazoi nagusia izaten da lehendik prozedura arrunta amaitu ez izana. Kasu batzuetan ikusten dugu izapide zuzenenak eta errazenak ez direla hasi ere egin. Beste batzuetan, izapideak hasten dira, baina kexa aurkeztu duen pertsonak uste du aldezleak bizkortu egin lezakeela bere kasua. Halere, gure bulegoak, beste zerbitzu eta organo batzuen lanari zor zaion errespetuagatik eta bere arautegiari jarraiki, salbuespenezko kasuetan esku hartzen du soilik ohiko prozedurak eta bideak amaitu aurretik (presazko gai bat denean, adibidez). Nolanahi ere, badirudi, askotan, izapideak motelegiak izaten direla kexa edo errekurtsioa aurkezten duen pertsonarentzat, baita administrazioak epeak betetzen dituen ere. Komenigarria izango litzateke horiek bizkortzea, ahal den neurrian.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

Zortzigarren taulak baietsi diren kexen gaiak biltzen ditu. Bertan, hondo urdin argiz nabarmentzen dira gutxienez hiru urtetan errepikatu direnak.

Ikus daitekeenez, baietsitako kexen gaiak izugarri aldatzen dira kolektibo guztietan, urte batetik bestera. Dena den, gai batzuetan errepikatze joera hautematen da: "Ikasleen ebaluazioa" eta "Prezio publikoak" ikasleen kolektiboan; "Irakaslan-banaketa", "Lan-baldintzak" eta "Plazak/Ordezkapen poltsak" irakasle-ikertzaileen artean; eta "Ikasketetarako sarbidea" "Beste batzuk" kolektiboan; halere, aurtan ez da kexarik aurkeztu azken bi kategoria horietan. Hau pozten gaituen datu positibo bat da. AZPko langileen artean, "Lan-baldintzak" nabarmentzen dira, irakasle-ikertzaileen kolektiboan baino maiztasun handiagoz.

Bestalde, bada arazo bat urtero errepikatzen dena eta aurreko txostenetan aipatu izan duguna: **dagokion epean ez erantzutea**. Horri dagokionez, ohar gaitezen bost urte hauetan baietsitako 119 kexen artean, 32 arrazoi horregatik baietsi zirela; alegia, % 26,9! Egia esanda, 2016an, hobera egin da joan den urtearekin alderatuta, gai horri lotuta baietsitako kexak 11tik 6ra jaitsi baitira. Nolanahi ere, aurtengo 6 horiek, zeinak unibertsitateko hiru kolektibotatik jaso baitira, erakusten dute jarduteko modu erabat gaitzesgarri hori oraindik zuzendu gabe dagoela hainbat sektoretan.

8. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	2 (1)	-	-	-	2 (1)
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	2 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	1
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	4 (1)
Gatazka ikaskideekin	-	-	-	-	2	2
Gradu/Master Amaierako Lana	-	-	-	1	-	1
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	4 (1)
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	7
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	1
Jendearentzako arreta	-	2	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	1
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	1
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	1
Ikasleak guztira	10 (1)	11 (2)	5 (1)	5 (1)	8 (2)	39 (7)
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	2
Erosketak	-	-	-	1	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	1
Gatazka lankideekin	-	3	-	-	-	3
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	1
Irakaslan-banaketa	2	-	1	1 (1)	2 (2)	6 (3)
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	1	-	-	1
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	-	-	-	-	2 (1)
Jazarpena/Jazarpen-portaerak	-	1	-	-	-	1
Lan-baldintzak	2	-	-	1	1	4
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	1 (1)	1 (1)
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	2
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	7 (3)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	1
Irakasle-ikertzaileak guztira	9 (1)	10 (2)	10 (2)	6 (3)	7 (3)	42 (11)
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	1
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Hierarkiako nagusiaren portaera	-	-	1	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	4 (2)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	1
Lan-baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	7 (2)
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	2 (1)
Plazak/Lekualdatze lehiaketa	2	-	1 (1)	-	-	3 (1)
AZPko langileak guztira	7 (0)	3 (1)	3 (1)	6 (5)	2 (1)	21 (8)
Bekak	1(1)	-	-	-	-	1 (1)
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	5
Jazarpena/Jazarpen-portaerak	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Kontratazioa	-	1	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	7 (3)
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Beste batzuk guztira	8 (3)	3	3 (1)	3 (2)	-	17 (6)
Guztira	34 (5)	27 (5)	21 (5)	20 (11)	17 (6)	119 (32)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Jarraian, 9. taulan, baietsitako kexen jomuga zer organo eta kolektibo izan diren ikus daiteke (aurrekoetan bezala, hiru urtetan edo gehiagotan agertzen direnak nabarmendu dira).

9. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1
Arkitektura GETko Zuzendaritza	-	1	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	-	1	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETko Zuzendaritza	1	-	-	-	-
Bilboko Irakasleen UEko Zuzendaritza	-	-	-	1	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako Masterraren Zuzendaritza	1	-	-	-	1
Epaimahai berezia	-	-	-	-	1
Erosketen atala	-	-	-	1	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1
Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza	1	-	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-
Gerentzia	8	1	-	-	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektor.	6	3	1	-	-
Graduondokoen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errek.	-	-	-	1	1
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-
Ikasleak	1	1	-	-	2
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-	3
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. Dekanotza	-	-	-	1	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-	1
Medikuntza eta Odontologia F. Dekanotza	-	1	1	-	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1
Sarbidea	-	-	2	1	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	-	1	-
Guztira	34	27	21	20	17

1.10. Jasotako erantzunak

Bulegora iritsi diren kexak bideratzeko jo dugun pertsonen eta organoen erantzuna, oro har, oso ona izan da: baietsitako 17 kexetatik 15etan, haiengana jo dugunean, pertsonak edo organoak egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak eta aholkuak. Ez dugu jaso txartzat har daitekeen erantzun bakar bat ere (ikus 10. taula).

10. taula. Kexari erantzun behar izan dioten pertsona edo organoen erantzuna

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	97
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	12
Ezezkoa	4	3	3	0	0	10
Guztira	34	27	21	20	17	119

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona guztiek prestutasunez lagundu digute, kexa edo kontsulta bati egoki erantzuten saiatzeko haiengana jo dugunean, salbuespen txikiren bat alde batera utzita.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bene-benetan, gure lana ongi egiten lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegi eta sailtako idazkaritzetako langileei, ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektorego taldeko kideak, ikasleak...

1.12. Ondorioak eta aholkuak

Ikusi dugunez, 2016an bulegoan landutako kasuen kopurua ia zkoa baino txikiagoa izan da. Halere, egia esanda, ia zkoarekin alderatuz gero, kopuruak oso antzekoak izan dira hala kexetan nola bitartekaritza eskaeretan. Jaitsi dena, modu nabarmenean gainera, kontsultak izan dira.

Eta, batez ere, ikasleen kolektiboan jaitsi dira. Aztergaien zenbateko globalaren aurtengo jaitsierak, funtsean, kolektibo horren kontsulten beherakada horrek azalduko luke. Aipatu dugun moduan, horrek islatuko luke pixkanaka egokitzen ari garela Bolonia Planaren askotariko aldaketetara. Interpretazio horrekin bat etorruta, ikasleen kolektiboan, "Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea" eta "Arautegia aplikatzeko modua" kategoriei lotutako gaiak, biak ala biak Boloniako eredurantzko trantsizioari lotuta, nabarmen jaitsi dira azken hiru urteetan.

Ikasleek planteatutako gaien artean, bada kategoria bat aurten eta urtero asko nabarmentzen dena: haien ebaluazioa. Gai horren inguruan era guztietako kexak sortzen badira ere, batek arreta berezia eskatzen du: noten berrikuspena. Horri dagokionez, Gradu eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegian jasotako bi alderdi zaindu beharko lirake bereziki: alde batetik, sailaren (edo ikastegiarena, azkenean ikasleak horrengana jotzen badu) erreklamazio batzordean erreklamatzeko den kalifikazioan esku hartu duten pertsonarik ez egotea, eta, bestetik, erabakia behar bezala arrazoitzea.

Irakasle-ikertzaileen kolektiboan, nabarmendu beharreko datu guztiz positibo bat dago; izan ere, 2016an, "Gatazka lankideekin" kategoria jaitsi da 2015etik, zeinetan ere nabarmen egin zuten behera gai horiek aurreko urteekin alderatuta. Horrek ez du esan nahi, ordea, kolektibo horren barruko arazoak amaitu direnik. Zoritxarrez, unibertsitate antolamenduaren eta funtzionamenduaren elementu objektibo gehiegi daude horren aurka. Edonola ere,

dirudienez, lanean hasi ginenean aurkitu genituen arazoetako asko, guztiz desagertu ez badira ere, moderatu egin dira.

Bestalde, nabarmendu behar dugu, irakasle-ikertzaileen kolektiboan baietsitako kexen gaien artean, aurten kategoría bat agertu dela aurreko urteetan ez zegoena: "Burokrazia". Orain dela urte batzuetatik hona, gehiegizko burokraziari lotutako kritika guztion ahotan – bereziki irakasle-ikertzaileen kolektiboan– badabil ere, gure bulegoan orain arte ez da inoiz aurkeztu modu esplizituan. Aurten horri lotutako bi kexa aurkeztu dira, eta gainera biak baietsi dira. Gaineratu behar dugu horien inguruan egin dugun esku hartzeak harrera ona izan duela dagokion organoetan. Espero dugu, beraz, hortik abiatuta karga hori arintzeko erabaki serio eta irmo bat hartzea, berandu baino lehen. Izan ere, pena izango litzateke irakasleek eta unibertsitateko langile guztiok azkenerako ohitu behar izatea eta etsitzea gure testuinguruko unibertsitateen egungo gaitz agerikoenetako batera, zeinak asperdura sortu, motibazioa kendu, eta sorkuntza ito besterik ez duen egiten.

Nabarmendu beharreko beste gai bat da "Lan-baldintzak" kategoriarik lotutako aztergaien kopuru handia, bai irakasle-ikertzaileengan, bai AZPko langileengan; nahiz eta, hainbat arrazoi tarteko (sindikatuak sakonki lantzen ari ziren gai bat zelako, prozedura arrunta amaitu gabe zegoelako...), aurkeztutako kexetako bi baino ez ziren baietsi. Urte hauek oso gogorrak izan dira unibertsitateko langileentzat. Kontuan har bedi gobernu zentralak, 2013an ezarritako % 10eko birjartze tasa, zeina 2015ean % 50era arte areagotu bazen ere, oraindik ez da nahikoa erantzun bat emateko, besteak beste, urte hauetan pilotutako plazen eskaerari; AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen soldaten izoztea; ikerketa proiektuen finantzaketaren murrizketa... Batzuetan, batik bat egoera prekarioan dauden kolektiboetan, atsekabea sortu bada ere, oro har, ahal bezain ongi eutsi zaio lanari –lan bat, aldi berean, eskaera askotara egokitzea eskatzen zuena eta, lehen esan bezala, gero eta burokrazia gehiago berekin zekarrena–. Halere, beste sektore publiko batzuetan bezala, hala nola osasunean eta beste maila batzuetako hezkuntzan, ezin zaio ahalegin horri etengabe eutsi, baldin eta kontuan hartzen ez badira hura mantendu behar dutenen baldintzak eta beharrak. Hori dela eta, espero dugu Errektoregoak, zeina, inondik ere, planteatzen ari garen honetaz guztiaz jakitun den, datozen urteetan borrokan jarraitzea fronte guztietan, UPV/EHUREN ikerketa, irakaskuntza eta kudeaketa garatzeko baldintzak eta aurrekontuak hobetzeko.

Azkenik, ezin ondorio hauek amaitu agintarien eta organoen epearen barruan erantzun ezaren arazoa aipatu gabe; izan ere, urtez urte aipatzen dugun gai bat izan arren, gaur egun oraindik planteatzen ari da. Egia esateko, 2016an hobera egin da joan den urtearekin alderatuta. Halere, datuek agerian uzten dutenez, unibertsitateko kideen eskakizunei ez erantzuteko jarduera desegoki hori zuzendu gabe dago oraindik. Gai hori funtsezkoa da erakunde baten kalitate demokratikoan eta edozein erakunderen giroan; joan den urteko txostenean luze mintzatu ginen horri buruz; beraz, aurtengoan ez dugu gauza bera errepikatuko. Gogoratu nahi dugu, halere, orduan esan genuena: ***erantzutea ez da aukera bat, betebeharra baizik.***

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Aurreko urteetan bezala, 2016an Aldezlearen lehentasuna izan da bulegoan jasotako kexei, kontsulterei eta bitartekaritza eskaerei ahal bezain ondo erantzutea. Hala eta guztiz ere, beste eginkizun batzuk ere izan ditugu, ondoko lerroetan labur azalduko ditugunak.

2.1. Aldezlea erakundearen publizitatea

Aldezlea martxan jarri zenean, 2011ko amaieran, erabat ezezaguna zen unibertsitateko kide gehienentzat. Hasiera-hasieratik, hura ahal bezainbeste ezagutzera ematearen beharraz jabetu ginen, eta lehenengo urtean jada hari buruzko publizitatea jarri genuen matrikulatzeko unean ikasleei entregatzen zaizkien karpetetan. Era berean, urtero, txostenaren berri ematen dugu Iragarki Oholean, eta horren ale bat bidaltzen diegu UPV/EHUko ikastegi guztietako zuzendariei.

Aurten, Aldezlea erakunde gisa ongi errotuta ikusita, komenigarritzat jo dugu zerbitzua are gehiago eta hobeto ezagutzera ematea. Horregatik, orain dela gutxi, publizitate kanpaina zabal bat egin dugu, informazio triptikoekin eta bideo labur batekin, zeina ikastegi guztietako monitoretan ematen ari baita.

2.2. G9 taldeko defendatzaileen bilerak

G9⁴ taldeko defendatzaileak urtean bitan bildu ohi dira. Aurten, taldearen lehen bilera, Extremadurako Unibertsitateak antolatutakoa, Badajozen egin zen urtarrilaren 28an eta 29an. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) “Irakasleen abstentzioa eta ezezpena”.
- 2) “Unibertsitate defendatzailea eta jazarpen protokoloak”.
- 3) “Ebaluazio bereziaz gauditua”.
- 4) “G9ko defendatzaileen antolakuntza eta funtzionamendua”.

Urteko bigarren bilera, Kantabriako Unibertsitateak antolatutakoa, Santanderren egin zen, ekainaren 27an eta 28an. Lau gai aztertu ziren:

- 1) “Diziplinarik eza eta ez-errespetuzko portaerak”.
- 2) “Defendatzaileen jarduna, delitutik gertu dauden jardueren aurrean”.
- 3) “Unibertsitate Defendatzaileen Latinoamerikako Sarea. Topaketa REDDUren presidentearekin”.
- 4) “Ikasketa erdi-presentzialak eta ikasketa birtualak unibertsitatean”.

Aurten Aldezleak txostenik aurkeztu ez badu ere, horiek prestatzeko lanean parte hartu du, txosten bakoitzaren arduradunak bidalitako inkestei erantzunda.

2.3. Araudi aldaketei buruzko jardunaldi teknikoa

Aurten, irailean urtero egiten den bilkuraz gainera, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) jardunaldi tekniko bat antolatu zuen, defendatzaileen lanean eragina izango duten azken araudi aldaketak aztertzeko. Jardunaldia Madrilen egin zen, apirilaren 15ean, eta bertan parte hartu zuten Agustí Cerrillo jaunak, Kataluniako Unibertsitate Irekiaren defendatzaileak eta Administrazio Zuzenbideko katedradunak, eta Joaquín Aparicio

⁴ Unibertsitateen G9 (9 taldea) beste hainbeste erkidegoko bederatzi unibertsitate publikok osatutako elkarte bat da: Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Balearrak, Errioxa, Nafarroa, Oviedo, Zaragoza eta EAE. Lan eta gogoeta talde oso aktiboa da, eta oso ongi funtzionatzen du. Hain zuzen, elkarteko kide ez diren unibertsitateetako defendatzaileak haren bileretara joan ohi dira; zehazki, Coruñaiko, Murtziako, Deustuko unibertsitateetakoak eta UNEDekoak.

jaunak, Gaztela-Mantxako Unibertsitatearen Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedradunak. Hurrenez hurren, hitzaldi hauek eman zituzten:

- “Universidad y cambios normativos: Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público”.
- “Universidad y cambios normativos: los nuevos Reales Decretos Legislativos 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, y 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores”.

2.4. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XIX. Bilkura

Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XIX. Bilkura, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) bultzatu eta Kordobako Unibertsitateak antolatutakoa, hiri hartan egin zen, 2015eko urriaren 19tik 21ra.

Bilkuran hiru lan mahai hauek landu ziren:

- 1) “Defendatzaileen ekarpena, unibertsitatearen gardentasuna eta gobernu ona hobetzeko”
- 2) “Jazarpena unibertsitatean”.
- 3) “Lana eta familia kontziliatzea unibertsitatean”.

Horrez gainera, Carlos M^a Alcover jaunak, Juan Carlos Erregea Unibertsitatearen defendatzaile ohiak eta Gizarte Psikologiako irakasle titularrak eta Eduardo Gamero jaunak, Administrazio Zuzenbideko katedradunak eta Pablo Olavide Unibertsitateko defendatzaile ohiak hitzaldi bat eman zuten “La mediación en las Defensorías Universitarias: perspectiva jurídica y psicosocial” izenburupean.

2.5. CEDUren foroak

Arazo berrien, konplexuen edo aparteko informazioa eskatzen dutenen aurrean, CEDUko defendatzaileen artean galderak eta eztabaidak sortzen dira askotan, posta elektronikoaren bidez. 2016an, gure bulegoak ekarpenak egin ditu gai hauen inguruan:

- Diziiplina arautegia.
- 13-14ko deialdiaren “Formación de Profesorado Universitario” (FPU) ikerketa kontratuak.
- Ikasle transgeneroen trataera zerrendetan.
- Erkidegoetako irakasle motak.
- Defendatzaileen presentzia Gobernu Kontseiluetan.
- Doktorego tesien difusiorako gordailuak.
- Doktorego tesien epaimahaien eraketa.

Gainera, G9ko eta CEDUko bileretan aztertutako gaiari buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

2.6. CEDUren Zuzendaritza Batzordea

Joan urteko txostenean jaso bezala, 2015eko azaroaren 4an eta 5ean Madrilen egindako Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XVIII. Bilkuran, CEDUren Zuzendaritza Batzordeko kide izateko hautatu ninduten. Batzordekide gisa, aurtan, batzordeak egindako sei bileretatik bostetan parte hartu dut. Bilera horietan, askotariko gaiak aztertu ditugu, hala nola 2015eko bilkuraren balantze ekonomikoa, 2016ko bilkuraren antolakuntza eta itxiera ekonomikoa, CEDUren webgunea, *Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"* aldizkaria – elkarrekin argitaratzen duena –, beste defendatzaile sare batzuekiko harremanak (ENHOE, REDDU, RIDU...), erakunde-harremanak (EUEB, Ministerioa...), eta abar.

2.7. *Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"* aldizkaria

Zuzendaritza Batzordearen lehen bileran, 2015eko abenduaren 16an, *Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"* aldizkariaren Erredakzio Batzordeko kide izendatu ninduten.

Aldizkari horretan, Erredakzio Batzordeko kide izateaz gainera, aurtan bigarren artikulua batean parte hartu dut, Malagako Unibertsitateko defendatzaile F. Manuel Montalbán jaunarekin batera:

Etxebarria, I. eta Montalbán, F. M. (2017). Derecho de petición, responsabilidad y agilidad en la tramitación de los asuntos en la administración universitaria. *Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"*, 1 zk.a, 138-165 or.

2.8. Granadako Unibertsitatearen defendatzailetzara egindako bisita

Bai G9ren bilerak, bai CEDUren urteko bilkurak esparru oso egokiak dira askotariko esperientziak eta ezagutza praktikoak trukatzeko geure lanari buruz, zeina, izaera berezikoa izanik, nahiko bakarka gauzatu eta garatu behar izaten baita, oro har.

Aurtan, gure lanean pixkanaka hobekuntzak txertatzeko defendatzaileen eginkizuna hobeto ezagutzeko asmoz, Granadako Unibertsitateko defendatzailetza bisitatu, eta zuzenean ezagutzeko aukera izan dut, tesi baten epaimahai kide gisa egindako egonaldiaz baliatuta. Unibertsitate horretako Antonio Ángel Ruiz Rodríguez jaunarekin izandako esperientzien trukea oso emankorra izan zen.

2.9. Harremanak arartekoarekin

2015aren amaieran izandako bileraren ondoren, lankidetzan jardun dugu arartekoaren bulegoarekin gai komunak planteatzen duten kasuetan –oso gutxi–. 2016/17 ikasturtearen hasieran, arartekoak, Manuel Lezertua jaunak, bi erakundeen arteko harreman erregularrak ezartzea proposatu zigun.

Harremanen esparru horren barruan, eta arartekoak berak eta Juan Luis Ibarra EAEko Auzitegi Nagusiko presidentek gonbidatuta, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunerako antolatutako ekitaldira joan ginen, abenduaren 9an. Bilbon egindako ekitaldi hartan, Guido Raimondi jaunak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentek, hitzaldi bat eman zuen “La Jurisprudence de la Cour Européenne des Droits de l’Homme en matière de droits sociaux” gaia ardatz hartuta.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2016ko aurrekontua 15.000 eurokoa izan da, aurreko urteetako kopuru bera. Hamaikagarren taulan, gastuak eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari –abenduak 31– dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

11. taula. 2016ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	15.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	2.168,82 €
CEDUko eta EHOHEko bazkide kuotak	275,00 €
Ikastaroak	5.768,30 €
Liburuak	123,24 €
Publizitatea	1.323,45 €
Bidaiak eta dietak	4.254,24 €
Beste gastu batzuk	90,32 €
Gastuak guztira	14.003,37 €
Saldoa	996,63 €

4. Bost urteko ibilbidea

Urte hauetako balantze hau hasteko, eskerrak eman nahi dizkiet, 2011n, beharrezkoa den adostasuna lortzeko eta Aldezlea erakundea arrakastaz martxan jartzeko gai izango zen pertsona bat pentsatzean, nigan konfiantza jarri zuten pertsoneri. Izan ere, lan benetan interesgarria egiteko aukera eskaini zidaten.

Horrela ulertu nuen hasieratik. Jakina, egin beharreko lana konplexua zen, eta bazituen ere arriskuak eta zailtasunak. Hala ere, eginkizun zintzoa zen, asebeteko ninduen, zalantzarik gabe. Aldezlearen Funtzionamendu Arautegiaren 2. artikulua dioen moduan: “Aldezlea UPV/EHUko erakunde bat da, eginkizuntzat duena unibertsitateko kideen eskubideak eta askatasunak babestea, eta unibertsitateko organo eta zerbitzuekin izan ditzaketan arazoak eta gorabeherak konpontzea. Era berean, unibertsitate kideen arteko auzietarako artekaritza

egiteko instantzia ere bada". Gainera, Estatutuen 75.1 artikulua hau ezartzen du: "Aldezleak unibertsitatearen kalitatea hobetzeko ahaleginak egingo ditu, esparru guztietan".

Urte hauetan, Aldezlearen bulegotik, akats eta bidegabekeria ugari konpontzen lagundu dugu; batzuk serioak, beste batzuk, ez hainbeste, baina guztiak garrantzitsuak jasaten zituzten pertsonentzat. Lortu ez dugunean, gutxienez, arretaz entzun diegu zerbitzura etorri diren pertsonen, eta nolabaiteko lasaitasuna helarazi ahal izan diegu. Ez dago hori bezalako poztasunik.

Era berean, beste kasu batzuetan, unibertsitateko funtzionamenduan hautemandako zenbait gabezia edo arazoren inguruan guk egindako iritziek eta gomendioek, batzuetan hasiera batean harrera ona izan ez badute ere, hobekuntza txikiak ekarri dituzte zerbitzu jakin batzuen funtzionamenduan eta araudian. Pertsona jakinei emandako laguntzarekin batera, erakundearen funtzionamenduan ustez izan dugun eragin positiboa, apala izan arren, beste pozbide nagusietako bat izan da guretzat.

Gure jarduera zailenak, zalantzarik gabe, irakasleen eta AZPko langileen barruan izandako gatazkak izan dira. Arazo horiek denbora gehiena eta ahalegin handienak eskatu dizkigute, eta horietan sortu zaizkigu ere zalantza gehien –askotarikoak, baita moralak ere–. Askotan, horrelako kasuak bulegora iristen direnerako, ibilbide luzea dute egina eta oso korapilatuta egoten dira, kronifikatuta ez bada. Horien kausak eta efektuak, portaeren eta jardueren arazoak, erantzukizun mailak, eta abar argitzeko analisisa bera oso konplexua izaten da, eta, zer esanik ez, horien irtenbidea. Horrelako kasuetan, behin baino gehiagotan eskatu behar izan dugu Aholku Batzordeko kideen laguntza, baita gatazkak konpontzen adituak diren pertsona ere, ondorio gutxi-asko argi batzuk ateratzen saiatzeko eta, hortik abiatuta, jardun lerro batzuk diseinatzeko; zeinak, arazoa osorik konpontzea lortu ez arren, baliagarriak izango ziren, gutxienez, hura libratzeko eta baretzeko. Horrelako kasuetan, inoiz ez gara erabat gustura gelditzen. Zerbaitetan okertu izanaren zalantza geratzen zaigu beti. Nolanahi ere, esku hartze horiek dituzten arrisku guztiak kontuan hartuta, uste dugu hobe dela arazo horiei irtenbide bat ematen saiatzea, betikotzen uztea baino.

Gure jardueretan, independenteak eta inpartzialak izaten saiatu gara beti, gure unibertsitatearen Estatutuek horrela zehazten dutelako (74.1 art.: "Aldezlea erakunde burujabe eta inpartziala da") ez ezik, justizia eta pertsonen eskubideak zaindu behar dituen gurea bezalako erakunde batean besterik egitea ere ezinezkoa izango liratekeelako. Ez da beti erraza izan, baina uste dut lortu dugula.

Era berean, beti saiatu gara gure konpromisoari eusten, hasieratik, gure iritziz, gure lanaren gidari izan behar zuten printzipioekin, hots: prestutasuna, kemena eta zuhurtzia. Burokrazia ahalik eta gehien ezabatu nahi genuen; erraz iristeko modukoak izan, arinak; eta, batik bat, laguntzeko jarrera erakutsi une oro, planteatutako gaia korapilatsua, zaila edo itsusia zen alde batera utzita. Uste dugu hori, neurri handi batean, lortu dugula. Era berean, bagenekien kemena, irmotasuna eta erabakitasuna beharko genituela, albiste txarrak behin baino gehiagotan eraman beharko genituelako administrazioa, edo biktimak eta erantzuleak dituzten arazoak izango genituelako, arazo batzuk non distantziakidetasuna ezinezkoa izango zen; izan ere, Vigoko Unibertsitatearen defendatzaile Rojo irakasleak⁵ dioen moduan, bitartekariak baino lehen, pertsonen interes eta eskubide legitimoen defendatzaileak gara. Puntu honetan, oro har, uste dugu ez dugula huts egin, gure ikuspegitik bederen. Amaitzeko,

⁵ "Una aproximación a la institución del Defensor Universitario: el caso español", www.cedu.es/images/otros_documentos/.../Rojo_2012_10_17.pdf

bagenekien, aldi berean, zuhurtasun handia beharko genuela, askotan oso esparru zailetan sartu beharko ginelako, non egia eta arrazoi morala ez ziren beti argi egongo, eta, edonola ere, gure jarduerak gatazkak konpontzera bideratu beharko zirelako beti, sekula ez areagotzera. Azken hori edo, zehatzagoak izateko, irmotasunaren eta zuhurtziaren arteko oreka lortzea zaila da askotan, eta, ziur asko, ez dugu beti lortu. Edonola ere, oreka hori gure jarduera guztien gidari izan dadin saiatu gara.

Urte hauetan guztietan, 578 pertsona hurbildu zaizkigu, gure unibertsitateko kolektibo, campus eta ikastegi guztietakoak, eta era guztietako kexak, kontsultak eta arazoak planteatu dizkigute (654 guztira). Oro har, pozik nago egin dugun lanarekin, nahiz eta ziurrenik beti ez asmatu. Lerrootatik, barkamena eskatu nahi diet gure lana espero zuten bezain egokia ikusi ez duten lagunei eta gure zereginaren ondorioz irainduta sentitu ahal izan direnei.

Hala eta guztiz ere, jakin badakit ere pertsona batzuek gaizki hartu dutela gure egitekoa, ez modu desegokian aritu garelako, egin behar genuena egin dugulako baizik, haien interesen kontra izan bada ere. Ez da eskarmentu atsegina, noski, baina hasieratik argi izan nuen erantzun mota hau nire erantzukizunak berezkoa duen zerbait zela, eta onartu egiten dut, kexarik gabe.

Gure unibertsitatean eginiko lanetik harago, aldeze gisa dagokidan erantzukizunak beste jarduera interesgarri batzuk ere barne ekarri ditu. Urte hauetan izandako eztabaida ugarietan (G9 Taldeko Defendatzaileen bilkuretan, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren –CEDU– urteko topaketetan eta jardunaldi teknikoetan, Europako topaketetan), gogoeta sakona egin ahal izan dugu unibertsitateari eta azken urteotan izan duen bilakaerari buruz: Bolonia Planak alderdi askotan izan dituen emaitza frustagarriak; aurrekontu murrizketen eragina unibertsitate ikasketetara iristeko aukeran, ikerketan eta irakasleen nahiz AZPko langileen egonkortasun, promozio eta lan arloko gogobetetzean; burokraziaren gehikuntza esponentziala eta unibertsitate bizitzaren arlo guztiak normatibizatzeke joera gero eta handiagoa; erabaki prozesuen teknifikazio progresiboa; erabaki ahalmena eta autonomia galtzearen pertzepzio gero eta handiagoa unibertsitateko kideen artean; gogoeta eta pentsamendu kritikoa urritzea mundu akademikoaren barnean...

Hartu eman hauetan guztietan, saiatu naiz ponentzien eta argitalpenen bidez egin ditudan ekarpen teorikoetatik harago joaten (zehazki, sei ponentzia eta bi artikulu). Dagoeneko esan dudan moduan, duela urtebetetik, CEDUren Batzorde Exekutiboko eta *Revista Universidad, Ética y Derechos "Rued@"* aldizkariko Erredakzio Batzordeko kidea naiz, eta bai batean bai bestean gogotsu saiatu naiz unibertsitatearen egungo egoerari buruzko eztabaidak eta gogoetak antolatzen eta bultzatzen.

Alde batera utzirik urte hauetan eginiko lanaren balorazioa, eztaba daezina da Aldezleak, erakunde gisa, ekarpen baliotsua egin diezaiokeela gure unibertsitatearen funtzionamenduari. Izan ere, Aldezlea ez da bakarrik, jadanik esan den bezala, funtsezko tresna bat unibertsitateko kideen eskubideak babesteko. Gainera, administrazioari lagun diezaioke zenbait arazo konpontzen (kolektibo batzuen barneko gatazkak, adibidez), denbora eta ahalegin handia eskatzen dutenak eta sarri agintariek behar besteko arretaz tratatu ezin dituztenak. Bestetik, sistemaren akatsak, hutsuneak eta gabeziak azpimarra ditzake, eta hobekuntzak bultzatu unibertsitatearen funtzionamenduan eta araudietan. Azkenik, gogoeta zabal bat bultzatzea dezake unibertsitatean azken urteotan gertatzen ari diren aldaketei buruz, gogoeta garrantzitsua eta beharrezkoa, askotan eguneroko zeregin eta betebeharrak ugariek soseguz egiten uzten ez digutena.

Gaur egun, esan genezake Aldezlea guztiz finkatuta dagoen erakunde bat dela. Datozen urteetako zeregina izango da erakundea sendotzea, potentzialtasun horiek guztiak garatzea eta unibertsitateko kideen konfiantza eta atxikimendu gero eta handiagoa lortzea. Nolanahi ere, merezi izan du bost urte hauetan eginiko lanak.

Act well your part, there all the honour lies.

Alexander Pope (1688-1744), *Essay on Man*, IV, 194

I. ERANSKINA: 2016ko aztergaien zerrenda

Gakoak

Taldea	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Taldea	Aztergai mota	Gaia
538	IRI	KE	UNEDn tutore gisa eginiko irakasle lana kontuan ez hartzea bosturtekoak kalkulatzeko.
539	IRI	KO	Irakats betebeharrak ezeztatze prozedura aurretik hartutako erretiroagatik.
540	IK	KO	Ikasleek ebaluazioa amaierako azterketa bidez egiteko duten eskubidea.
541	IK	KE	Irakasle baten tratu desegokia eta haren irakasgaiaren ebaluaziori buruzko informaziorik eza.
542	IK	KO	Kredituen % 30a euskaraz eskatzearen legezkotasuna gaztelaniaz matrikulatuta dagoenean.
543	IRI	KO	Irakasle baten postan ikasle baten mezua arakatzeko aukera.
544	AZP	KO	Arazoak gainetik dagoen arduradun batekin eta lankide batekin.
545	IRI	KO	Errekurtsoa jartzeko aukera euskara ikasteko laguntza ukatzearen aurka.
546	IK	KE	Desadostasuna ustez ebaluazio mende ez zegoen irakasgaiaren zati baten kalifikazioarekin.
547	Beste batzuk	KO	Doktore berriak kontratatze laguntza ukatzea deialdian aipatzen ez den arrazoi bategatik.
548	IK	KO	Irakasle baten tratu desegokia eta desadostasuna ebaluazio moduarekin.

549	AZP	B	Zerbitzu buru batek emandako tratu txarra.
550	IRI	KO	IRI kolektiboari alegaziorik ez eskatzea ikasle batzuen kritikak direla-eta.
551	IRI	KO	Desadostasuna bosturtekoak ukatzearekin.
552	IRI	KO	Nola jokatu ikasleen arteko jazarpen kasuan.
553	IRI	KO	Irakasleekin eta ikaskideekin arazoak sortzen dituen ikaslea.
554	IRI	KO	Saileko kide guztiekin arazoak dituen pertsona, bereziki trabak sortzen dizkiona kontsulta egin duenari.
555	IRI	B	Arazoak gaineratik dagoen arduradunarekin.
556	IK	KO	Desadostasuna praktiketako azterketarekin, probaren eguna aurretik ez zehazteagatik.
557	IK	KE	UPV/EHUK gaizki kobratu dituen tasak.
558	IK	KO	Bigarren matrikulaldian eginiko eskaera ukatzea.
559	IK	KE	Erantzunik eza Gradu Amaierako Lana (GRAL) espetxean egiteko aukerari buruzko errekurtsioari.
560	IK	KO	Tesi zuzendariaren tratu desegokia.
561	IK	KE	Arazoak ikaskideekin.
562	IK	KE	Krediturik ez aitortzea ikastegitik kanpoko ingeles eskolengatik.
563	IK	KO	Ikertzaileen prestakuntzarako kontratazio eskaera ukatzearen aurrean eginiko alegazioei eman beharreko erantzunaren atzerapena.
564	IRI	KE	Burokrazia handia eta adeitasunik eza unibertsitate administrazioaren eskakizunetan.
565	AZP	KO	Lanaldi mota aukeratzeko ezintasuna.
566	Beste batzuk	KO	Doktore berriak kontratatzeke laguntza ukatzea deialdian aipatzen ez den arrazoi bategatik.
567	IRI	KO	Arazo posibleak epaimahai baten osaeragatik.
568	AZP	KE	Lanpostuaren ingurumen baldintzak.
569	IK	KO	Ikastegiak Ikasleen Kontseilurako hauteskunderako deialdirik ez egitea.

570	IK	KO	Etengabe aldatzea keinu hizkuntzako itzultzailea eta gaitasun txikiagoa duen pertsona jartzea.
571	IK	KE	Kredituak euskaraz egiteko eskatzea matrikula gaztelaniaz egin denean.
572	AZP	KE	Eskaera bati sei hilabetetan ez erantzutea.
573	IRI	KO	Ezohiko deialdian lan bat eskatzeko aukera.
574	IRI	B	Gatazka luzea lankideekin irakats lanaren esleipenagatik.
575	AZP	B	Lankidearen portaera desagokia eta gaineratik dagoen arduradunaren erantzunik eza.
576	IRI	KE	Komunikazioa ingelesez (letra handiz) eta gaztelaniaz (letra txikiz), baina ez euskaraz.
577	AZP	KE	Ez eskaintzea euskaraz AZPkoentzako Prestakuntza Ikastaroak.
578	IK	KO	Ikasle baten ikaskideekiko errespetu falta sare sozialetan.
579	IK	KO	Epaimahai Bereziaren ezezkua.
580	IRI	KE	Kongruentziarik eza UPV/EHUren Ikerketarako Laguntzak emateko deialdian eta erantzun nahasiak aurkeztutako zalantzei.
581	IRI	KE	Argudio desagokiak ezezkua ematean irakaskuntza ordutegia aldatzeko proposamenari.
582	IRI	KE	Sailak egin duen irakaskuntza banaketa onartzen ez duen irakaslea.
583	IRI	KO	Zer egin ebaluazio moduarekin ados ez dagoen ikasle baten irainak direla-eta.
584	IK	KO	Zer egin deialdi bat galdu denean, talde batean alta eman ez zaiolako eta, hortaz, dagokion informazioa jaso ez duelako.
585	IRI	KO	GRALen zuzendaritzari buruzko zalantzak.
586	IK	KE	Desadostasuna practicum egiteko norakoak esleitzeko prozesuarekin.
587	IRI	KO	Ikasleen ebaluazioari buruzko galderak.
588	IK	KO	Irakasgai bateko konpentsazio bidezko ebaluazioari buruzko zalantzak.
589	IK	KE	Arazoak GRALren aurkezpenean.

590	IRI	KO	Zer egin norberaren plazaren errelokazio posiblearen aurrean, plaza hori lortzean beste bat utzi denean.
591	Beste batzuk	KO	Jada iraungita dagoen tituluan azken irakasgaiak matrikulatzeko ezintasuna.
592	IK	KO	Galderak ikastegi batean irakasgai bat matrikulatu eta kobratzeko modu bitxiari buruz.
593	IK	KO	Nota ez bidezkoa, ustezko ezinikusi pertsonal bategatik.
594	IK	KE	Arreta desegokia jasotzea master batean.
595	IRI	KE	Gai disfuntzionalak ikerketa proiektuen ebaluazio etikoan.
596	Beste batzuk	KE	Laguntzaileen plazen deialdiko baldintzak.
597	IK	KE	Ebaluazio metodo desegokia.
598	IK	KE	Arazoak bi irakasgairen ebaluazioan.
599	IK	KO	Arazoak doktorego programa batean matrikulatzeko.
600	IK	KE	Kalifikazioetan akats bat ez zuzentzea.
601	IK	KE	Practicumean matrikulatzeko ezintasuna arautegiaren interpretazio oker bategatik.
602	IK	KO	Idazkaritzaren informazio okerra automatrikularako lehentasun ordenari buruz.
603	IRI	KE	Erantzunik eza agintari akademikoei bidalitako idatziei.
604	IK	KO	Arazoak tesi zuzendariekin.
605	IK	KO	Babes eskaera ikastegiak practicumaren matrikula arrazoirik gabe ukatu ondoren, ikastegiak berak argitaratutako baldintzak bete arren.
606	IK	KE	Kupo txikiegia Masterrean.
607	AZP	KE	Kutxaren murrizketak UPV/EHUren tasa eta prezio publikoak ordaintzeko ordutegietan.
608	IK	KE	Zerbitzu batean eskaera bat gaztelaniaz errepikatzeke eskatzea, euskaraz idatzitakoa ulertzeko ezintasunagatik.
609	Beste batzuk	KE	Arkitekturako GRALa lan esperientziarekin baliozkotzeko ezintasuna.

610	IK	KO	Graduko titulua eskatzeko ikastegiak ezartzen duen baldintza bat betetzeko alternatibak.
611	IK	KO	Lehen maila hasi eta berehala karreraz aldatzeko aukera.
612	Beste batzuk	KO	Arazoak ikerketa master batean matrikulatzeko.
613	IRI	KO	Saileko zuzendariak uko egitea bere erantzukizunei.
614	IRI	KO	Zergatik ezin duen parte hartu prestakuntzan dagoen irakasle-ikertzaileak Unibertsitate Irakasleentzako Prestakuntza Programan (UIPP).
615	IK	KO	Klaseen artean atsedenaldia eskatzeko ikasleen eskubidea.
616	Beste batzuk	KO	UPV/EHUren graduko titulua beste herrialde batean homologatzeko behar den dokumentazioa.
617	IRI	KO	Irakaskuntza murrizteko aukerari buruzko zalantzak.
618	AZP	KE	Gabonetako txanda hartzeko ezintasuna alta hartzean amatasun baja baten ondoren.
619	AZP	KE	Zerbitzu bati erakutsitako errespetu falta egoki eginiko eskakizun baten ondoren.
620	IRI	KO	Adjudikazioa errekurrituta duen kontratu bat sinatzearen ondorioak.
621	IRI	KO	Atzerriko titulu bat baliozkotzeko arazoak.
622	IRI	KO	Aitortutako ordainsari osagarriak kobratzeko arazoak, kontratu motagatik.
623	IRI	KO	Zer egin <i>bullying</i> egoera batean.
624	AZP	KO	Senide bati ebakuntza batean laguntzeko baimen ordaindua izateko aukera.
625	IK	KE	Amaierako ebaluazioa ukatzea ustez eskaera epez kanpo egiteagatik.
626	IK	B	Arazoak ikaskideekin.
627	IRI	KE	Irakasle talde baten iritzi idatzi bat ofizialki bideratzea.
628	IK	KE	Ikaskideen erasoak pairatzea.
629	IK	KE	Ikastegiko zuzendaria ikasle batekin bidegabeki aritzea.

630	IRI	KE	Erantzunik eza bilerako akta baten eskaerari eta irakasgai bat ezabatzeko prozedura desegokia.
631	IK	KO	Nola eskatu prezio publikoak itzultzea matrikula ezeztatu ondoren.
632	IK	KO	Nola erreklamatu kredituen aitortza praktikak lantegietan dituzten irakasgaietan.
633	AZP	KO	Ordu sindikalen erabilera justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa.
634	IK	KE	Arazoak ikaskideekin eta ikastegiko zuzendariarekin.
635	IK	KE	Kexak ikaskide baten portaerari buruz.
636	IK	KE	Epaimahai Berezi Nagusiak erreklamazio bati epe barruan ez erantzutea.
637	IK	KE	Arazoak doktorego programa batean matrikulatzeko.
638	IK	KE	Arazoak Bidasoaldeko garraioarekin.
639	IK	KO	Graduko kanpoko praktiketako lan kontziliazioari buruzko arautegia.
640	IK	KO	Ahozko azterketa baten grabazioari uko egiteko ikasleek duten eskubidea.
641	Beste batzuk	KE	Babes eskaera ikasle bati ezarri zaion zigorra aztertzeke.
642	IRI	KE	Irakasle elkartuen lan egoera.
643	IRI	KE	Osakidetzarekin loturiko irakasle-ikertzaileen diskriminazioa Jardun Akademikoaren Planean.
644	AZP	KO	Zer egin goiko arduradunek errespeturik gabe jokatu dutenean bidezko eskaera bat egin ondoren.
645	IRI	KO	Aldi baterako irakasle-ikertzaileen egoera UPV/EHUen.
646	IRI	KO	Greba dela-eta ikasleekin egin ez zen bilera bat egiteko betebeharrari buruzko zalantzak.
647	IK	KO	Azterketa atzeratzeko eskubidea seme-alaba baten jaiotzagatik.
648	IRI	KE	Saileko zuzendariaren oniritzia lortu beharra master baten Ikasketen Gidaliburuan eginiko aldaketa onartzeko.
649	IRI	KO	GAUREn grabatu behar diren tutoretzak.

650	IK	KE	Sail baten jokabidea irakasgai baten ebaluazioan eta ikasle batekin izandako errespetu falta.
651	IRI	KO	Desadostasuna ikertzaile doktoreen bosturtekoen ebaluazioarekin.
652	AZP	KO	Zer egin ikasle bati zabal dakioken espedientearen aurrean.
653	IK	B	Bitartekaritza ikastegiko zuzendariarekin izandako gatazkan.
654	IRI	KO	GRALak esleitzeko irizpideak.
